



**CONGRESO DE
INNOVACIÓN
PÚBLICA
2026**

Donostia
URRIAK 29 - 30

KURSAAL KONGRESU JAUREGIA

ARDATZ TEMATIKOAK

#NovaGob2026

5 ARDATZ TEMATIKOAK

Sarrera

1. BERRIKUNTZA PUBLIKOA ERRONKA KONPLEXUAK EBAZTEKO:

Begirada berriak arazo publikoei heltzeko



2. ERALDAKETA DIGITALA:

Kudeaketa publikoa adimen artifizialaren aroan



3. ADMINISTRAZIO ERRAZ ETA PERTSONALIZATU BATERANTZ:

Zerbitzu publiko proaktibo, sinple, hurbil eta irisgarriak



4. HERRITARREN KONFIANTZA GOBERNU ONAREN ZIGILU GISA:

Erakundeen gardentasuna, parte-hartzea, integritatea eta erresilientzia indartzea



5. BALIABIDEEN KUDEAKETATIK PERTSONEN KUDEAKETARA:

Administrazio publikoak bultzatzen dituen bihotza



SARRERA

Administrazio publikoek teknologia-, gizarte-, ekonomia- eta lurralde-aldaketek baldintzatutako eraldaketa sakoneko une bati egin behar diote aurre. Digitalizazioaren azelerazioaren, adimen artifiziala bezalako teknologia emergenteen garapenaren, arazo publikoen konplexutasun handiagoaren eta herritarrek erakunde eraginkorragoak, gardenak eta hurbilak eskatzearen ondorioz, sektore publikoak gure gizarteetan duen papera birpentsatu behar da.

Testuinguru honetan, berrikuntza publikoa berebiziko ikuspegi gisa finkatu da erronka konplexuei heltzeko, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza indartzeko. Administrazioek gero eta aldakorragoak diren inguruneetara egokitu behar dute, antolakuntza-gaitasun berriak garatu eta teknologiaren potentziala baliatu, zerbitzu publikoaren oinarri diren balioak ahaztu gabe.

NovaGoben Berrikuntza Publikoko Kongresua topagune gisa finkatu da sektore publikoko profesionalentzat, ikertzaileentzat eta berrikuntza publikoaren ekosistemako eragileentzat; horiek guztiek partekatzen dute kudeaketa publikoa hobetzeko eta erakunde demokratikoak indartzeko helburua. Hurrengo ardatz tematikoen bidez, kongresuak esperientziak, ezagutzak eta proposamenak trukatzeari sustatzen du, administrazio publiko berritzaileagoak eta irekiagoak eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prestakuntza handiagoa dutenak eraikitzen lagunduko dutenak.

1. BERRIKUNTZA PUBLIKOA ERRONKA KONPLEXUAK EBAZTEKO

BEGIRADA BERRIAK ARAZO PUBLIKOEI HELTZEKO

Administrazio publikoek erronka gero eta konplexuago, interkonektatuago eta aldakorragoei egin behar diete aurre. Hiri-eraldaketak, gizarte-desberdintasuna, dibertsitatearen inklusioa, zatiketa politikoa, tentsio globalak, klima-aldaketa edo herritarren eskari berriak bezalako arazoei erantzun berritzaileak eta politika publikoko ikuspegi egokigarriagoak eskatzen dituzte.

Berrikuntza publikoa funtsezko tresna bat da erronka horiei heltzeko. Horrek esan nahi du lan-metodologia berriak txertatu behar direla, esperimentazioa sustatu eta administrazioen, sektore pribatuaren, akademiaren eta herritarren arteko lankidetzak bultzatu. Horrela, konponbide berritzaileak sortuko dira, gizartearen premia errealei irmoki erantzuten dietenak eta adimenduna eta herritarrengandik hurbila den estatu baterantz hurbilduko gaituztenak.

Testuinguru honetan, bereziki garrantzitsua da politika publikoetan esperimentatzea, zehazki, berrikuntza publikoko laborategiak, hiri-mailako sandboxak, arautzaileak, misio eta/edo erronketara bideratutako berrikuntza eta berrikuntzaren eresketa publikoa bezalako tresnen bidez. Mekanismo horiei esker, konponbide berriak frogatu daitezke ingurune kontrolatuetan, esperientziatik ikasi eta eraginkortasuna erakusten duten ekimenak eskalatu.



Era berean, garrantzia irabazten ari da politika publikoetarako zientziaren ikuspegia (science for policy), ezagutza zientifikoaren eta erabaki publikoak hartzearen arteko konexioa indartu nahi duena. Ebidentzia zientifikoa, datuen analisia eta politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan aditua den ezagutza integratzeak ahalbidetzen du erabakien kalitatea hobetzea eta, gainera, horrela, indar daiteke administrazioek duten gaitasuna estrategia irmoetan oinarritutako gobernantza-eredu bat ezartzeko. Izan ere, estrategia horiek gai izango dira egungo erronkei zein berriak, harrigarriak, bat-batekoak eta ustekabekoak diren bestelako erronkei aurre egiteko.

Aldi berean, gero eta nabarmenagoak dira berrikuntza publikoaren neurketa eta ebaluazioa. Berrikuntza publikoko adierazle eta indizeak garatzeak aukera ematen du ekimen berritzaileen eragina aztertzeke, administrazioen artean esperientziak alderatzeko eta erakunde-gaitasunak indartzeko, horrela ebidentzia zientifiko-teknikoan oinarritutako politika publikoak bultzatzeko.

Berrikuntza publikoaren alde egiten duten lurraldeetan, hiriak eta eskualdeak benetako esperimentazio-laborategi bihurtzen ari dira. Hiri-berrikuntzako ekimenen, ekintzailatza-ekosistemen bitartez eta administrazio, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresen arteko lankidetzako ekimenen bidez, konponbide berriak garatzen ari dira trantsizio ekologikoa, hiri-eraldaketa, etxebizitzarako sarbidea eta gizarte-kohesioa bezalako erronka konplexuei aurre egiteko. Ikuspegi horiek ahalbidetzen dute berrikuntza publikoa konektatzea lurraldeko gaitasunekin: zientifikoak, teknologikoak eta enpresen alorrekoak.



Berrikuntzaren erosketa publikoa funtsezko tresna bat da administrazio publikoek konponbide berriak bultzatzaren edo erronka publiko konplexuak ebaztera bideratutako askoz konponbide hobeak bultzatzaren. Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzetik harago, ikuspegi horrek ahalbidetzen du ekosistema berritzailea aktibatzea, enpresa, startup, unibertsitate eta zentro teknologikoekiko lankidetzaren sustatzea eta berrikuntza balio publikoaren sorkuntzarantz orientatzea. Horren aplikazioa bereziki nabarmena da digitalizazioa, jasangarritasuna, osasuna, mugikortasuna edo zaintzak bezalako eremuetan eta, hortaz, erakunde-gaitasunak indartzeko eskatzen du, erronkak identifikatzeko, merkatuarekiko elkarrizketa sortzeko eta emaitzetan oinarritutako konponbideak kontratatzeko.

Ardatz honetan, honakoarekin lotutako esperientziak jorratuko dira: berrikuntza publikoko laborategiak; ebidentzian oinarritutako politika dinamikoak; politika publikoetarako zientzia; aholkularitza zientifikoko programak; sandbox arautzaileak eta hirikoak; misio eta erronketara bideratutako berrikuntza-kasu praktikoak; gobernu adimenduna (Smart government); berrikuntza publikoaren eremuko arriskuen kudeaketa; berrikuntzaren erosketa publikoa; industrializazio-mekanismoak; GovTech ekosistemak; gobernantza-ereduak; lankidetzaren eremuak eta berrikuntzak nazioarteko esparruaren barruko sektore publikoan duen eraginaren ebaluaziorako eta neurketarako tresnak.



2. ERALDAKETA DIGITALA: ADIMEN ARTIFIZIALA ETA TEKNOLOGIA EMERGENTEAK ADMINISTRAZIO SENDOAK LORTZEKO

KUDEAKETA PUBLIKOA ADIMEN ARTIFIZIALAREN AROAN

Administrazio publikoetan, eraldaketa digitalak jarraitzen du aldaketa-eragile nagusietako bat izaten. Teknologia emergenteek aukera berriak eskaintzen dituzte administrazio-eraginkortasuna hobetzeko, erabakiak hartzeko prozesuak optimizatzeko eta zerbitzu publiko pertsonalizatuagoak, proaktiboagoak eta irisgarriagoak garatzeko.

Prozesu honetan, administrazioek aurrera egin behar dute autonomia eta burujabetza digitalaren ikuspegitik handizaleagoak diren ereduetarantz. Horrez gain, eredu horiek sendoagoak eta iragazgaitzagoak izango dira zibersegurtasunaren ikuspegitik, baita arrisku teknologiko eta operatiboen aurrean erakunde-erresilientzia eta babesa bermatzeko gai ere. Erronka horiek berebizikoak izango dira herritarrek honakoak bezalako hain alderdi garrantzitsuetan konfiantza edukitzeko: administrazio elektronikoko tresnak erabiltzea edo datuak erakunde publikoei lagatzea.

Funtsezkoa da informazioaren sarbidean eta parte-hartze digitalean emango den aurrerapen hau desberdintasunaren eta bazterkeria-arrakala berrien ikuspegitik egitea. Horretarako, eztabaida berariazko mekanismoak eta arauketak babesten dituen aterki europarrean oinarrituko da.



Azkenengo urteotan, adimen artifiziala, datuen analisi aurreratua, biki digitalak edo prozesuen automatizazioa bezalako tresnak administrazioan politika publikoak diseinatzeko, zerbitzuak kudeatzeko eta herritarrekiko harremana ezartzeko modua eraldatzen ari dira. Teknologia horiek aukera ematen dute administrazio adimendunago eta arinagoetarantz aurrera egiteko, adierazpen-maila handiagoa izango dutenak erabakiak hartzean. Halaber, gai izango dira premiak aurreratzeko eta oinarritutako erantzun azkarrak eskaintzeko. Proposatzen dugu AAren ezarpen-kasu errealak eta gobernantza algoritmikoko azpiegiturak ikusaraztea.



Hain zuzen ere, hiri-eremuan, biki digitalak bezalako teknologiek agertokiak simulatzea, datuak denbora errealean aztertzea eta politika publikoen plangintza hobetzea ahalbidetzen dute. Testuinguru honetan, hiri eta lurralde asko denbora errealeko informazioan oinarritutako kudeaketa-ereduak eta datuen hiri-plataformak sustatzen ari dira; horiekin, hiri-plangintza, mugikortasuna, jasangarritasuna eta azpiegituren kudeaketa hobe daitezke.

Datu publikoak eta pribatuak integratzeak eta azpiegitura digital seguruak garatzeak aukera berriak irekitzen dituzte lurraldeen kudeaketa adimendunerako eta politika publiko eraginkorragoen diseinurako, horrela administrazio burujabeagoak eraikitzen lagunduz, baliabide teknologikoekiko kontrol estrategikoarekin.



Gainera, sektore publikoaren aro digital berriak erronka garrantzitsuak planteatzen ditu honekin lotuta: datuaren gobernantza, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna, zibersegurtasuna eta azpiegitura digital publikoen babesa. Agertoki honetan, administrazioak antolakuntza sendo, autonomo eta erresiliente gisa finkatu behar dira, bere aktibo kritikoak defendatzeko eta ingurune teknologiko gero eta konplexuagoan bermeekin operatzeko prest daudenak. Hala, komeni da automatizazio adimenduaren eta administrazio agentikoaren eztabaidari heltzea. Halaber, Europako testuinguruan, gero eta garrantzitsuagoa da burujabetza teknologikoaren inguruko eztabaida. Ulertu behar da burujabetza hori erakunde publikoek azpiegitura digital seguruak, elkarreragingarriak eta estrategikoki autonomoak edukitzeko duten gaitasuna dela, datu publikoekiko kontrola eta funtsezko teknologiak bermatuz.

Ardatz honek erakundeen gaitasunak datuen gobernantzarako hobetzeko esperientziak jorratuko ditu, baita honakoarekin lotutako ekimenak ere: kudeaketa publikora aplikatutako adimen artifiziala; AA arduratsua; datuaren gobernua; administrazioen arteko elkarreragingarritasuna; plataforma partekatuen erabilera; zibersegurtasuna; biki digitalak; zerbitzu digital aurreratuen garapena eta sektore publikoko burujabetza teknologikoarekin lotutako erronkak. Hori guztia adierazpen-maila handiagoa duen administrazio sendoago, iragazgaitzago, burujabeago eta arinagoak eraikitze helburu partekatuarekin.

3. ADMINISTRAZIO ERRAZ ETA PERTSONALIZATU BATERANTZ

ZERBITZU PUBLIKO PROAKTIBO, SINPLE, HURBIL ETA IRISGARRIAK

Administrazio publikoek aurrera egin behar dute zerbitzu publikoen erdigunean pertsonak benetan jartzen dituzten kudeaketa-ereduetarantz. Askotan, administrazio-prozeduren konplexutasunak, lengoaia teknikoak edo erakunde-zatiketak zailtzen dute herritarren sarbidea zerbitzu publikoetara.

Administrazioaren modernizazioa dela-eta, berriro ere diseinatu behar dira zerbitzu publikoak, baina horiek erabiltzen dituztenen ikuspegitik. Horrek esan nahi du sinplifikatu behar direla izapideak, erabiltzaile-esperientzia hobetu, lengoaia argia erabili eta zerbitzu irisgarriago, inklusiboago eta ulergarriagoak garatu; huts egiteko eskubidearekin, abantailak eta arriskuak haztatzeko gaitasuna indartuz, horrela eraginkortasuna bermatzeko eta inor atzean ez uzteko.

Testuinguru honetan, gobernu pertsonalizatuaren paradigma sortu da, pertsona bakoitzaren berariazko premietara egokitutako zerbitzu publikoak eskaintzeko gai diren administrazioetarako bilakaera planteatzen duena. Datuen erabilera adimendunari esker, zerbitzuen diseinuari, administrazioen elkarreragingarritasunari eta zerbitzu digital aurreratuen garapenari esker, erakunde publikoek aurrea har diezaiekete egoera garrantzitsuei, hala nola seme/alaba baten jaiotza, hezkuntzarako sarbidea, enplegu-bilaketa edo erretiroa, eta, horrela, erantzun publiko arinagoak eta egokiagoak eskaini.



Ikuspegi hori aplikatzeak esan nahi du kanal bakarreko zerbitzu publiko pertsonalizatuago eta proaktiboagoetarantz aurrera egin behar dela, pertsonen bizitzaren etapa desberdinetan laguntzen dutenak eta herritarren administrazio-zama murrizten dutenak. Benchmarkingaren ikuspegiarekin, kalitate hobeko politika publikoak lor daitezke, gizarte-irismen handiko ereduetan inspiratuta. Beste alderdi interesgarri bat administrazioek abiarazten dituzten komunikazio argiko ekintzen ebaluazioa da, barne hartuta lengoaia argiaren edo erabiltzaileetan oinarritutako komunikazio argiaren eraginaren ebaluazio enpirikoaren inguruko esperientzia errealak.



Gero eta administrazio gehiago ari dira pertsonen bizitzaren funtsezko uneetan laguntzearen aldeko apustua egiten duten zerbitzu publikoak sustatzen, gobernu-maila desberdinak eta zerbitzu publikoak integratuz. Ikuspegi horrek aukera ematen du herritarren premiei erantzun koordinatuagoak eta eraginkorrak emateko, bereziki zaintzak, enplegua, hezkuntza edo gizarteratzea bezalako eremuetan. Aipatzen dira, besteak beste, elementu hauek: identitate digitala, herritarren karpeta, funtsezko ekitaldietan oinarritutako arkitektura eta erabiltzaile-esperientziaren neurketa.

Ardatz honetan, honekin lotutako ekimenak jorratuko dira: administrazio-sinplifikazioa; pertsonetan zentratutako zerbitzuen diseinua; zerbitzu publikoen pertsonalizazioa; zerbitzuen dimentsionamendua; herritarren esperientziaren hobekuntza; komunikazio argia; inklusio digitala eta herritarren premiak aurreratzeko gai diren zerbitzu publiko proaktiboen garapena.

4. HERRITARREN KONFIANTZA GOBERNU ONAREN ZIGILU GISA

ERAKUNDEEN GARDENTASUNA, PARTE- HARTZEA, INTEGRITATEA ETA ERRESILIÉNTZIA INDARTZEA

Herritarrek erakunde publikoetan duten konfiantza demokrazia garaikideen funtsezko oinarrietako bat da. Azkenengo urteotan, herrialde askotan, gobernu eta administrazio publikoekiko mesfidantza areagotu da, erakundeen eraginkortasunik ezaren pertzepzioa, zintzotasunik eza eta iruzurra, polarizazioa eta espazio publikoko desinformazioaren igoera direla-eta.

Testuinguru honetan, administrazio publikoek indartu behar dituzte gobernu oneko, integritateko eta kontu-
emateko politikak, gardentasuneko, etika publikoko eta erakunde-erantzukizuneko estandar altuak bermatuz. Interes-gatazkak prebenitzea, integritate-sistemak indartzea eta erabakiak hartzeko prozesuen kalitatea hobetzea berebiziko elementuak dira herritarren konfiantza berreskuratu eta gizarte-asebetetzea handitzeko.

Era berean, gobernuak gero eta konplexuagoa den komunikazio-ingurune batean moldatu behar dira, buloen eta desinformazioaren hedapen azkarrak baldintzatutakoa. Hortaz, erakundeen komunikazio publikoa indartu behar da eta herritarrekiko harreman argiagoa, zuzenagoa eta gardenagoa finkatu.



Erakunde-konfiantza indartzeko, herritarrek parte hartzeko espazio berriak ireki, gizarte zibilarekiko lankidetza sustatu eta gobernu irekiko politiketan aurrera egin beharra dago, herritarren inplikazio handiagoa ahalbidetzen dutenak politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan. Gaur egun, Espainian, berariazko legeria onartzen ari da, politika publikoen ebaluazio hobea eta interes-taldeen eragina bultzatzeko erabakiak hartzeko prozesuetan; ekimen horien ezarpenari buruz hausnartuko dugu estatu irekiagoetarako aurrerapen erreala ezagutzeko.



Erakunde publikoek gero eta konplexuagoak eta ziurgabeagoak diren inguruneetan jarduteko gaitasuna indartu behar dute. Gerrek eta osasun-, ekonomia-, klima- edo teknologia-krisialdiek gobernuak eraginkortasunez, koordinazioz eta erantzukizunez erantzuteko duten gaitasuna probatzen dute. Zentzu horretan, arriskuei aurrea hartzeko, aldaketara egokitzeko eta zerbitzu publikoen jarraitutasuna bermatzeko gai diren erakunde erresilienteen garapena funtsezko elementua da demokraziak indartzeko.

Bereziki garrantzitsua da gobernu-maila desberdinen arteko lankidetza. Halaber, tokiko, eskualdeko eta Estatuko administrazioen arteko koordinazioa berebizikoa da erakunde bakar baten eskumenetatik harago doazen erronka konplexuei heltzeko. Maila anitzeko gobernantzak aukera ematen du politika publikoen koherentzia hobetzeko eta erronka garaikideei erantzuteko erakunde-gaitasuna indartzeko.



Garapen komunitarioko ikuspegi batetik, gizarte gero eta trebatuago, autonomoago eta erantzukideagoen aldeko apustuak indarra hartzen du, protagonismo handiagoa izan dezaketenak bere hobekuntza-prozesuen definizioan. Betiko kanalen bidezko herritarren parte-hartze instituzionalizatuaren ideia gero eta mugatuago geratzen da, baita eskas eta eragingabe ere, lurraldeetan aldaketa nabarmenen bat benetan lortzeko.

Berrikuntza publikoak ikuspegi disruptiboagoak txertatu behar ditu, erakunde-presentzia handiagoa planteatu behar du prozesuak horizonte eraldatzaile batekin bultzatuz eta lagunduz eta benetan parte-hartzaileagoa den demokrazia batekiko beldurra galdu behar du, herritarren artean konfiantza gutxiago sortzen duen ordezkagarritasunean hain ainguratuta ez dagoena. Gardentasun algoritmikoa, erabakien trazabilitatea, zibersegurtasuna eta neurketa-adierazleak aipatzen dira konfiantzaren oinarri gisa, hori guztia burokrazia gainditzeko premiarekin lotuta, konfiantza sozial hori berreskuratzeko eta herritarrek kudeaketa publikoarekiko duten asebetetze-pertzepzioaren adierazleekin lan egiteko.

Ardatz honetan, honakoarekin lotutako ekimenak jorratuko dira: gobernu irekia; gardentasuna; integritate publikoa; herritarren parte-hartzea; erakundeen komunikazio publikoa; desinformazioaren aurkako borroka; burokrazia gehiegiren aurrean hobetzeko estrategiak eta erakunde-erresilientzia indartzea erronka garaikideen aurrean.

#NovaGob2026

5. BALIABIDEEN KUDEAKETATIK PERTSONEN KUDEAKETARA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK BULTZATZEN DITUEN BIHOTZA

Administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonak dira sektore publikoaren eraldaketaren motor nagusia. Hurrengo urteetan, antolakuntza publikoek talentuaren kudeaketarekin, belaunaldi-erreleboarekin eta gaitasun profesional berrien garapenarekin lotutako erronka garrantzitsuei egin beharko diete aurre.

Europako herrialde askotan, langile publiko ugari daude erretirotik gertu eta horrek erakunde-jarraitutasuna bermatzearen erronka planteatzen du, berrikuntza hori antolakuntza publikoak modernizatzeko baliatzen den bitartean. Testuinguru honetan, administrazioek talentua erakarri eta mantentzeko gaitasuna indartu beharko dute, bereziki teknologia, datuen analisia edo berrikuntzaren kudeaketa bezalako eremu estrategikoetan.

Eraldaketa digitalak eta gizarte-erronka berriek sektore publikoan gaitasun profesional berriak gehitzeko ere eskatzen dute, barne hartuta adimen artifiziala, datuen analisia, proiektuen kudeaketa, zerbitzuen diseinua edo pentsamendu estrategikoa. Aldi berean, funtsezkoa da lidergo publikoa indartzea eta erakundeetan antolakuntza-eraldaketa eta berrikuntza bultzatzeko gai den zuzendaritza publiko profesionalaren garapenean aurrera egitea.



Administrazio publikoak lan- eta antolakuntza-eredu berriak esploratzen ari dira, malguagoak, kolaboratiboagoak eta emaitzetara bideratutakoak, erakundeen egokitzeko gaitasuna hobetzea eta ikaskuntzara, esperimentaziora eta berrikuntzara irekitako antolakuntza-kulturak erraztea ahalbidetzen dutenak. Antolakuntza publikoen barruan aldaketaren kudeaketa bultzatzea ere funtsezkoa da eraldaketa digitala errealia izan dadin eta balioa sor dezan.

Lurralde berritzaileak estrategiak garatzen ari dira talentua erakarri eta mantentzeko, zientzia- eta enpresa-ekosistemak konektatzeko eta administrazioen gaitasunak indartzeko berrikuntza-prozesuen lidergoa hartzeko. Estrategia horiek administrazio publiko, unibertsitate, ikerketa-zentro eta enpresa-egituraren arteko lankidetzan eusten dira, ezagutza- eta berrikuntza-ekosistemak indartzeko xedearekin. Ikuspegi horrek ahalbidetzen du talentu publikoaren garapena konektatzea lurraldeko zientzia-, teknologia- eta ekonomia-gaitasunekin.

Funtsezkoa da administrazio publiko askotarikoago, inklusiboago eta berdinzaleagoetarantz aurrera egitea. Aukera-berdintasuna sustatzeak, langile publikoen dibertsitatea bermatzeak eta lan-ingurune inklusiboak sortzeak laguntzen du erakundeen zilegitasuna indartzen eta politika publikoen kalitatea hobetzen. Administrazioek zerbitzatzen duten gizartearen dibertsitatea hobeto islatu behar dute, genero-ikuspegiak eta belaunaldi-, kultura- eta gizarte-dibertsitatea txertatuz talentu publikoaren kudeaketan.



Funtsezkoa da tresna egokiak ematea eta administrazioko langileen prestakuntza hobetzea bereizitako kolektiboari arreta emateko, horien ikuspegia ere txertatuz zerbitzuen kudeaketaren hobekuntzan. Era berean, sektore publikoko gaitasunak indartzera bideratutako ekimenak aztertuko dira, aro digitalaren erronkei aurre egiteko eta erakundeetan misio eta zerbitzu publikoko zentzua indartzeko.

Science for policy ideiaren goraldiarekin lotuta, administrazioaren barruan, langile publikoaren profil berri bat sortzen da zientzia-ezagutzaren bitartekari (Knowledge broker) gisa. Zuzendaritza-ikasketaren eta ezagutza-transferentziaren dimentsioak aipatzen ditugu. Zuzendaritza-profesionalizazioaren aldeko apustua, zeharkako gaitasunen inguruko prestakuntza eta gaitasun bigunak funtsezko ataza dira. Gainera, karrera profesionaleko ereduak, jardueraren ebaluazioa, talentu teknologikoaren erakarpina eta rol berriak nabarmendu behar dira, etengabeko gaikuntzako ekimenekin batera, baita lan-klimarekin lotutako arazoak gainditzeko estrategiak ere.

Erakundeen sektore publikoan integratutako zuzenbide publikoko entitateen barruan, kultura-aldaketaren kudeaketa bereziki garrantzitsua da antolakuntza konplexuetan ere bai, non, giza baliabideen eremuan berritzeko, prozesu parte-hartzaileak, elkarrizketa eta barne-pedagogiako lan irmoa behar diren. Zentzu honetan, analisia aberastea ahalbidetzen duten begiradak gehi daitezke, kontuan hartuta, besteak beste, unibertsitate-eremua bezalako antolakuntza-errealitate askotarikoak, horrela sektore publikoaren aniztasuna eta aberastasuna islatzen lagunduz.



Ardatz honetan, honakoarekin lotutako esperientziak jorratuko dira: talentuaren kudeaketa estrategikoa dibertsitate-, berdintasun- eta inklusio-gakoan; profesionalen erakarpena eta garapena sektore publikoan; lidergo eta zuzendaritza publiko profesionala; etengabeko ikasketa; antolakuntza publikoen eraldaketa kulturala eta lan-forma berriak administrazioan.



#NovaGob2026



**CONGRESO DE
INNOVACIÓN
PÚBLICA
2026**

Donostia
URRIAK 29 - 30

KURSAAL KONGRESU JAUREGIA

ARDATZ TEMATIKOAK

#NovaGob2026